

'Core' diru-sarrerak 462,9 M€-ra iritsi ziren, eta negozio-bolumena % 9 hazi zen

Kutxabankek % 18,7 igo zuen emaitza garbia martxorako, kreditu-inbertsioaren hazkunde handiarekin

Partikularrak eta familiak. Etxebizitzak erostera bideratutako finantzaketa berria 1.165 M€-koa izan zen (+% 11,8) eta kontsumora bideratutakoa % 27,3 igo zen

Enpresak eta erakundeak. Kreditu-saldoa % 16 hazi zen: Banka Korporatiboarena % 17,6 eta Enpresetarako Bankarena % 20,2. Sustatzaile-kreditua: eraikitzen ari diren etxebizitza finantzuak 1.770 unitate baino gehiago izan ziren eta % 99,4 jasangarriak dira

Finantzaketa jasangarri berria: 855 M€. % 71 enpresetara bideratu zen, hipoteka berrien % 17, eta kontsumoan 2,25x biderkatu zen

Merkatuko 4. kudeatzailea, eta hiruhilekoan egindako harpidetzen arabera, 1.a. Inbertsio-fondoak % 12,8 hazi ziren, eta balantzetik kanpo kudeatutako ondarea 45.200 M€-tik gorakoa izan zen

Digitalizazioan irtenbide gehiago. Hipoteken % 98 online kanalen bidez kudeatzen dira, kontsumorako kredituaren % 91 eta aurreikuspen-produktuen % 72. Erakundeko bezero guztien % 68 baino gehiago aktibo daude banka digitalean

Kaudimenean nagusi (CET 1 *phased in* % 20,97*koa) eta sektoreko berandutza-ratiorik txikienarekin: % 1,07ra jaitsi zen eta batezbestekoa baino oinarrizko 164 puntu txikiagoa da

Gizarte-ekarpena. Diru-sarreraren % 79 gizartera itzuli zen soldatetan, hornitzaileei egindako erosketetan, zerga-ordainketan eta dibidendu sozialean (124 M€, emaitza garbiaren % 70)

2026ko apirilaren 28a.- Kutxabankek 176,7 M€-ko emaitza garbia lortu zuen 2026ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berean baino % 18,7 gehiago, merkataritza-dinamismo handiak eta hazkunde eta dibertsifikaziorako ekimen estrategiko nagusien errendimendu sendoak bultzatuta.

Haren 'core' jardueraren diru-sarrerak 462,9 M€-koak (-% 2,3) izan ziren, interes-tasen kurbak interes-marjinan izandako eraginaren ondorioz, baina neurri handi batean zerbitzu eta aseguruengatiko diru-sarreraren bolumen eta ekarpen gero eta handiagoarekin konpentsatu ziren, % 8,2 handitu baitziren ondare-kudeaketagatik (balantzetik kanpoko baliabideak: inbertsio-fondoak, zorro delegatuak eta aurreikuspena) (+% 8,2) eta aseguruengatik (+% 11,1).

Magnitude nagusien bilakaerak hazkunde- eta dibertsifikazio-estrategia bati erantzuten dio, partikularretan eta familietan kreditu-inbertsioa eta enpresentzako finantzaketa nagusi direla: 2026ko lehen hiruhilekoan, emandako hipoteka berriak % 11,8 gehitu ziren, eta produkzio-sareari emandako laguntzak handizkako saldoa % 16 haztea eragin zuen, Banka Korporatiboak (+% 17,6) eta Enpresetarako Bankak (+% 20,2) bultzatuta.

Urtarriletik martxora bitartean, negozio-bolumena (kredituak, gordailuak eta balantzetik kanpoko baliabideak) % 9 igo zen 2025eko aldi beraren aldean, 149.453 M€-raino.

Portaera hori Taldeak bere interes-taldeeii egiten dien ekarpenera aldatzen da. 2026ko lehen hiruhilekoan diru-sarreraren % 79 (460,5 M€, marjina gordin gisa neurtuta, tasarik eta kargarik gabe)

gizartera itzuli zen soldatetan, hornitzaileei egindako erosketetan, zerga-ordainketan eta dibidendu sozialean. Gainerakoa, hazkunde jasangarrira bideratu da. Eraitza garbiaren % 70 (124 M€) fundazio akziodunei banatuko zaie beren gizarte-ekintza garatzeko.

Bezere partikularrentzako kreditu gehiago, hipotekak nagusi direla eta kudeaketa digital handiagoa

Partikularrei eta familiei emandako kredituetan, Kutxabankek % 11,8ko igoera izan zuen etxebizitza bat erosteko finantzaketa berrian (hipotekak), 1.165 M€-ra iritsi baitzen. Kontsumorako maileguen onarpena, beste apustu estrategikoetako bat, % 27,3 hazi zen, 252 M€-raino. Azken atal horretan, Saltegi kredituak % 27 egin zuen aurrera.

Esparru horretan, nabarmentzekoa da, halaber, online kontratazioa gero eta handiagoa dela, irtenbide digitalen eskuragarritasun handiagoak bultzatuta: hipoteken % 98 kanal digitalen bidez kudeatu ziren uneren batean, kontsumorako kredituaren % 91, eta aurreikuspen-produktuen % 72. 2026ko lehen hiruhilekoan, Taldeko bezeroen % 68 baino gehiago aktibo zeuden banka digitalean.

Enpresa-sarearen finantzaketaren hazkunde sendoa

2026ko urtarrila eta martxoa bitartean, handizkako negozioaren kreditu-inbertsioa, enpresa-sarea bultzatza eta garatza bideratua, modu sendo eta iraunkorrean hazi zen, eta saldoa 16.888 M€-koa izan zen (+% 16, 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean). Banka Korporatiboa (% 17,6 hazi zen eta 7.500 M€-tik gorakoa da) eta Enpresetarako Banka (% 20,2 igo zen, 2.867 M€-raino) izan ziren nagusi.

Handizkako bankan ere *Financing Solutions* arloa –finantzaketa sindikatua eta baliabiderik gabea (*project finance*) – nabarmendu da, zeinak hiruhilekoan 400 M€-ko balioko eragiketak metatu eta bere zorroaren dibertsifikazioa indartu baitzuen aktibo eolikoak eta zuntz-aktiboak gehituta. Higiezinaren sustapenean, eraikitzen ari diren etxebizitza finantzuak 1.770 unitate baino gehiago izan ziren eta % 99,4 etxebizitza jasangarriak dira.

Finantzaketa jasangarri berria: 855 M€; % 71 enpresetara zuzendua

2026ko urtarrila eta martxoa bitartean, Kutxabankek aurrera egin zuen banka jasangarriarekiko konpromisoan, eta 855 M€-ko finantzaketa berria lortu zuen. % 71 enpresetara bideratu zen, kontsumo 'berdekoa' 2,25 aldiz biderkatu zen eta, hipoteketan, produkzio berriaren % 17 izan zen.

Aldi horretan, Kutxabankek Europako Inbertsio Fondoaren (EIF) bermearekin gauzatu zuen bere lehen abal-eragiketa –Basquevolt enpresa teknologikoarekin, bere eskalatu industrialia sustatzeko–, horrela ari da erakundea finantzaketa berria bideratzen, ETEen trantsizio bikoitza, jasangarria eta digitala, bultzatzeko.

Finantza-aholkularitzan erreferenteak: sektoreko 4. kudeatzailea eta, harpidetza garbien arabera, 1.a

2026ko lehen hiruhilekoan, Kutxabankek bere posizioa sendotu zuen sektoreko laugarren kudeatzaile gisa inbertsio-fondoetan, eta lehena izan zen harpidetza garbietan. Erakundeak 45.200 M€ baino gehiagoko ondarea kudeatzen du balantzetik kanpoko baliabideetan (inbertsio-fondoak, zorro delegatuak eta aurreikuspena).

Aldi horretan, inbertsio-fondoetako baliabideen bolumena % 12,8 hazi zen 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, % 7,4ko kuotarekin, eta % 6,1eko igoera izan zen pentsio-plan indibidualerako ekarpenetan. Gainera, BGAETan kudeatutako ondarean zuen lidergoa sendotu zuen, % 47ko kuotarekin.

Aseguru-negozioaren gero eta ekarpen handiagoa

Kutxabanken aseguru-negozioak hazkunde nabarmena izan zuen berriro 2026ko lehen

hiruhilekoan: 37.600 poliza berri baino gehiago, horrek produkzio berriko primak % 12,2 haztea dakar, 32 M€-raino. Portaera horren ondorioz, aseguru-negozioak 43 M€-ko ekarpena egin zion Taldearen marjina gordinari, batez ere etxeko aseguruak (+% 7 komisio bolumenean) eta autorako aseguruak (+% 21,6 komisio bolumenean) jarduerak bultzatuta.

Epe horretan, Kutxabank Seguros-ek funtzionaltasun digital berriak gehitu ditu polizak simulatu, kontratatu eta kudeatzeko, bai eta etxeko aseguruetako ezbeharrak kudeatzeko ere, sektorean berezia den eredu batekin, AAn oinarrituta.

Liderra kaudimenean eta berandutza-ratiorik txikienarekin sektorean

Kutxabank berriro finkatu zen urteko lehen hiruhilekoan, Europako Banku Zentralak (EBZ) gainbegiraturako sektorean kaudimen- eta berandutza-ratiorik onenak dituen banku gisa: kaudimen-ratioa (CET 1 *phased in*) % 20,97*koa izan zen eta berandutza-ratioa % 1,07koa; sektoreko batez bestekoa baino oinarritzko 164 puntu txikiagoa.

Errentagarritasun-adierazleei dagokienez, ROTE (kapital ukigarriaren gaineko itzulkina) nabarmen hazi zen % 11,7raino, urteko lehen hiruhilekoan oinarritzko 174 puntuko hobekuntza izan ondoren. ROA (aktiboen gaineko itzulkina) % 1ekoa izan zen; eta efizientzia-ratioa –ROF (finantza-eragiketen emaitzak) kenduta– % 40,9koa. Hori guztia, eraldaketa teknologiko eta digitalean eta talentuan inbertitzeko ahaleginari eutsiz.

Lehen hiruhilekoan, hornidura arruntan beharra oso txikia izan da, eta hori erakundearen kreditu-zorroaren profil onagatik, kreditu- eta higiezin-estalduraren ratio altuak aurreko hiruhilekoen antzekoak baitira. Azken bi urteetan (2024 eta 2025), horniduren zuzkidura 726 M€-tik gorakoa izan da.

Kutxabanken kontuak 2026ko lehen hiruhilekoan

	2026.1Hiruh	Δ%
Interesen marjina	284,8	-7,9
Zerbitzu eta aseguruengatiko diru-sarrerak	178,0	8,2
Banku-negozioaren 'core' sarrerak	462,9	-2,3
Dibidenduak, emaitzak baliokidetasunean eta ROF	3,2	-86,9
Ustiapeneko beste emaitza batzuk	-10,2	10,0
Marjina Gordina	455,8	-6,8
Ustiapen Gastuak	-201,4	9,3
Ustiapen Marjina	254,5	-16,5
Saneamenduak eta narriadurak	-7,5	-93,6
Bestelako irabaziak eta galerak	11,7	-23,2
Zerga aurreko mozkina	258,6	28,4
Zergak eta bestelakoak	-81,9	55,8
Taldeari egotzitako emaitza	176,7	18,7

Milioi eurotan

*Lortutako CET1 kaudimena, epealdian lortu diren banatu gabeko mozkinak barne.